



## AISIA -TXIKITXOKOA

### PREBENTZIO NEURRIAK COVID-19a dela eta

---

#### □ EGUNERO INSTALAZIOA ERABILTZERA ZATOZTENEAN

- **Ez da etorriko** ez umea ez heldua:
  - **Sukarra** badu (tenperaturak **37,5 °C** gainditzen badu).
  - **Arnas sintomarik** badu (eztula, arnasteko zailtasuna, eztarriko mina, hotzikarak, ondoeza, usaimen edo dastamen galera, okadak edo beherakoa...).
  - **Kontaktu estua** izan badu COVID 19arekin loturiko sintomak dituen pertsona batekin edo kasu konfirmatu batekin (PCR+).
    - Aurreko 3 kasuetan **ezingo dira txikitxokora etorri 14 egunean**; hala ere, jarraitu beharko dituzte Osakidetzatik emandako irizpideak.
    - **Zaurgarriak** direnak edo **kaltebera** den pertsona **batekin bizi** direnak hobe ez etortzea.

#### □ TXIKITXOKOAN ZAUDETEN BITARTEAN

- **Sartzean garbitu eskuak.** Haur zein helduek eskuak sarri garbituko dituzte. Horretarako, eskura izango dute beti **ura eta xaboia**, eta **gel** hidroalkoholikoa (*azken hau soilik helduen kontrolpean*).
- Jolasten diharduten bitartean beste erabiltzaileekin **2 metroko distantzia** gordeko dute.
- **Familiak ez** dira elkarren artean **nahastuko**.
- **Ekarritako jostailuak** ezingo dira partekatu, eta instalaziotik alde egitean eraman egin beharko dira.
- Txikitxokoan **ezin da jan**.
- Ekipamendu bat erabiltzean, guraso edo tutoreek **aldez aurretik garbitu** beharko du, eta jolastu **ostean , berriro garbitu**. Horretarako, eskura izango dituzte likido **desinfektatzailea** eta papera.

#### □ COVID-19KO SINTOMAK AGERTUZ GERO TXIKITXOKOAN ZAUDETEN BITARTEAN

**Haur edo heldu batek** sukarra edo COVID-19aren sintomak izaten baditu:

- **Instalaziotik irten** eta **jarri harremanetan osasun zentroarekin**, pertsonari dagokion jarraipena egin diezaioten. Osakidetzatik aginduko dute zer neurri hartu behar den, bai pertsona sintomatikoarekin, bai haren inguruko pertsonekin.
- **Abisatu arduradunei** lokala ixteko eta **desinfekzioa** egin dadin, berriro erabili ahal izateko.

#### □ LOKALAREN HIGIENE NEURRIAK

- Haurren eskura **xaboia eta ura** egongo dira.
- **Gel** hidroalkoholikoa eta **spray desinfektatzaileak helduek bakarrik** erabiliko dituzte. Produktu horiek alkohola dute proportzio altuan. Saihestu kontaktua begiekin: kontuz likidoa pulberizatzean edo dosifikatzailea sakatzean, zipriztinak izan daitezke eta. Igurtzi eskuak produktua lehortu arte.
- **Aireztatu gelak**: horretarako, leihoak eta atea, ahal bada, zabalik egongo dira. Bestela, tarteka gela aireztatuko da, eta atea eta leihoak zabalik utziko dira.
- **Komunak banaka erabiliko dira**. Erabili ostean, ukitutako leku guztiak (txorrotak, etengailuak, zisternaren eskulekua ...) desinfektatzaileaz garbituko dira.